



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

PRENTSA-OHARRA

LAU IBILBIDE GIDATU ENKARTERRIKO GERRA-AGERTOKIAK EZAGUTZEKO

- Enkarterrietako Museoa eta Bizkaiko Batzar Nagusiek lau ibilbide kultural antolatu ditue, gerra karlistetako eta Gerra Zibileko gerra-agertoki nagusiak ezagutzeko.
- Izen-emotea dobakoa da eta enkarterrimuseoa.eus. helbidean egin daike.

(Abellanedan, 2021eko azaroaren 3an). Enkarterrietako Museoa eta Bizkaiko Batzar Nagusiek “**1873-1937. Gure memoriaren gerrak**”, proiektua aurkeztu dabe, eskualdeko gerra karlistetako eta Gerra Zibileko agertoki nagusietara eroango gaituen lau ibilbide kultural. Arkeologo eta espezialisten eskutik, proiektuak, Enkarterrin 1833 eta 1939 bitartean izan ziran eta ia 100 urte bete ebezan gatazka garrantzitsuenetan zehar ibiltzera konbidetan dau.

Enkarterrietako Museoan (Sopuerta) hasiko diran ibilbide kulturek lau gerra-agertoki desbardinaren artean aukeratzera eroango ditue izena emon daben personak: Somorrostroko guduak (1874); Celadillako guduak (1875); Kolutzako guduak (1937); eta Balmasedako gerra-agertokiak (1936-1939).

Enkarterrietako Museoaren proiektu honek Gorka Martin eta Xabier Herrero EHUko arkeologoen eta Balmaseda 1937 alkarteko Zunbeltz Matabuena larzaren laguntza izan dau, eta XX. mendeko soziedade enkartauaren lehenengo marrazkia egiten hasi ziran agertoki hareek ahanzturatik atera gura ditu. Leku horreetako batzuk, oraindino, karlisten talde desbardinaren batailoien eta gerra zibilaren aztarnak ditue.

Zemendiaren 13 eta 27rako, abenduaren 11rako eta urtarrilaren 15erako programau diran ibilbide gidauk II. Karlistaldiko (1872-1876) aurrerapen arkeologikoetatik edaten dabe, Somorrostroko (Abanto) eta Celadillako (Zalla) guduetao agertokietan egindako indusketen bidez, eta baita Gerra Zibilaren (1936-1939) inguruan Balmasedan, herrigunean eta Kolutza mendian, egindako memoria historikoko lanetatik be.

Denporeagaz, arkeologia-lanek Enkarterriko gerra-agertoki garrantzitsuenetako batzuk lurpetik atera eta aurkitu ditue; historialariek eta alkarteek, barriz, gerra-gertakarien erretratu gizatiarragoa egin dabe, eta gerra-gertaera horreek gertutik bizi izan ebezan personen ideak, pentsamentuak eta bildurrak batu eta balioetsi ditue.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

LAU IBILBIDE GIDAU:

- **Zemendiak 13: Somorrostroko guduak (1874).** 1874ko zezeila eta maiatza bitartean, Bilbo tropa karlistek setiauta egoala, armada liberal eta karlistek borroka gogorak izan ebezan gaur egun Abantokoak eta Muskizekoak diran lurretan. Milaka lagun hil ziran, eta izugarritzko oihartzuna izan eban Europa osoan, istiluen garrantziarengaitik. Orain dala gitxi, hainbat ikerketa historikok eta indusketa arkeologikok leku horreetako batzuk balioetsi ditue. Ibilbidea 10:00etan hasiko da, Gorka Martinek Enkarterrietako Museoaren bilduman dagozan eta gudu horreetan erabili ziran armen (espingardak, fusilak, ezpatak...) inguruan egingo dauen berbaldiagaz. Horren ostean, 1874ko guduen ondorioz hondatuta dagon Abantoko San Pedro eleizaren ingurura joango dira.
- **Zemendiak 27: Celadillako guduak (1875).** 1875 eta 1876 artean, hainbat gudu izan ziran, Zallan dagon Celadilla ganean eta Balmasedako mugan. II. Karlistaldiko beste agertoki garrantzitsuenetako batzuk izan ziran. Orain dala gitxi, hainbat ikerketa historikok eta indusketa arkeologikok leku horreetako batzuk balioetsi ditue. Jardunaldia museoan hasiko da Gorka Martinen berbaldiagaz, eta ibilbidea autobusez eta oinez (50 minutuko ibilaldia dago oinez) egingo da, aztarnategi arkeologikora iritsi arte.
- **Abenduak 11: Kolitzako guduak (1937).** 1937ko uztailean eta abuztuan, Koltza (Balmaseda) eta Alen (Sopuerta/Turtzioz) mendien arteko frontean, euskal armadak hainbat kontraeraso hasi ebazan armada nazionalak defendidutako San Roke basilizaren kontra, bagilaren amaieran okupautako Enkarterriko lurra berreskuratzeko. Emaizta bako eraso hareetan, alde bietako ehunka soldadu hil ziran. Ibilbidea 10:00etan hasiko da Museoan, Zunbeltz Matabuena larzaren eta Xabier Herreroren berbaldi bategaz. Bertan, Balmaseda 1937 Alkarteak, ahalik eta modu egokienean eta zabalenean ezagutuarazoteko komiki formatuan aurkeztu ebazan gerra zibileko gertaera nagusiak laburbilduko ditue. Abellanetatik Kolitzara eta La Neverako lepora iritsiko da ibilbidea, 1937ko uda haretan izan ziran guduen agertokira.
- **Urtarrilak 15: Balmaseda. Gerrako agertokiak (1936-1939).** Balmaseda oso puntu garrantzitsua izan zan Gerra Zibilean. Batailoi errepublikarrak eta, ostean, nazionalak instalau ziran bertan. Eraikin askok erabilera militarra izan eben, eta lantegiak militarizatu eta alde biek erabili ebezan. Babeslekuak eregi ziran eta ospitaleak, aginte-postuak, hornidura-lekuak, zaintza-postuak, biltegi militarrek... prestau ziran. Ibilbide honetan, hori eta askoz gehiago ezagutuko dogu. Zunbeltz Matabuena larzaren eta Xabier Herreroren berbaldiaren ostean, Balmasedako San Severino plazara joango gara autobusez, eta handik, gaur egun ahaztuta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

dagozan Balmasedako gerrako hainbat gune aurkituko doguz: ospitalea, batailoien kantonamendua, kuartel nagusiak, lantegi militarizatuak edo aireko erasoen kontrako babeslekuak.

Izena emotea eta informazio gehiago:

<https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/index.asp>



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



NOTA DE PRENSA

CUATRO RUTAS GUIADAS PARA CONOCER LOS ESCENARIOS BÉLICOS DE ENKARTERRI

- **El Museo de Las Encartaciones y las Juntas Generales de Bizkaia organizan cuatro itinerarios culturales para conocer los principales escenarios bélicos de las guerras carlistas y la Guerra Civil.**
- **La inscripción es gratuita y puede hacerse en enkarerrimuseoa.eus.**

(Abellaneda, a 3 de noviembre de 2021). El Museo de Las Encartaciones y las Juntas Generales de Bizkaia presentan el proyecto “**1873-1937. Las guerras de nuestra memoria**”, cuatro itinerarios culturales que nos llevarán a los principales escenarios bélicos de las guerras carlistas y la Guerra Civil en la comarca. El proyecto invita a pasear de la mano de arqueólogos y especialistas por los parajes más importantes de casi 100 años de contiendas que se sucedieron en Enkarterri entre 1833 y 1939.

Las rutas culturales, que comenzarán en el Museo de Las Encartaciones (Sopuerta) conducirán a las personas inscritas a elegir entre cuatro escenarios bélicos diferentes: las batallas de Somorrostro (1874); las batallas de Celadilla (1875); las batallas del Kolitza (1937); y escenarios de la guerra en Balmaseda (1936-1939).

Este proyecto del Museo de Las Encartaciones, que ha contado con la colaboración de los arqueólogos de la UPV/EHU, Gorka Martín y Xabier Herrero, y de Zunbeltz Matabuena Iarza, de la Asociación Balmaseda 1937, trata de desenterrar del olvido aquellos escenarios en donde comenzó a dibujarse la sociedad encartada del siglo XX. Algunos de estos lugares cuentan todavía con restos del paso de batallones de los diferentes bandos carlistas y de la Guerra Civil.

Las distintas rutas guiadas, que se han programado para los días 13 y 27 de noviembre, 11 de diciembre, y 15 de enero, beben de los avances arqueológicos de la II Guerra Carlista (1872-1876) a través de las excavaciones realizadas en los escenarios de las batallas de Somorrostro (Abanto) y Celadilla (Zalla), así como de los trabajos de memoria histórica que sobre la Guerra Civil (1936-1939) se han hecho en Balmaseda, tanto en su casco histórico como en el monte Kolitza.

Con el paso del tiempo, trabajos arqueológicos han ido desenterrando y descubriendo algunos de los escenarios bélicos más importantes de Enkarterri mientras que historiadores y asociaciones han aportado un retrato más humano de los



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

acontecimientos bélicos, recopilando y poniendo en valor las ideas, pensamientos y temores de las gentes que vivieron de cerca estos episodios bélicos.

CUATRO RUTAS GUIADAS:

- **13 de noviembre: Las batallas de Somorrostro (1874).** Entre febrero y mayo de 1874, con Bilbao sitiado por las tropas carlistas, los ejércitos liberal y carlista se enfrentaron en unas cruentas batallas que se desarrollaron en los actuales terrenos de Abanto y Muskiz. Su resultado fueron miles de muertos y una repercusión enorme en toda Europa por la magnitud de los enfrentamientos. Recientemente diversos estudios históricos y excavaciones arqueológicas han puesto en valor algunos de aquellos lugares. Este itinerario comenzará a las 10:00 horas con una charla de Gorka Martín sobre las armas utilizadas (espingardas, fusiles, espadas...) que forman parte de la colección del Museo de Las Encartaciones, para después desplazarse al entorno de la iglesia de San Pedro de Abanto, en ruinas a causa de las batallas de 1874.
- **27 de noviembre: Las batallas de Celadilla (1875).** Entre 1875 y 1876 se produjeron una serie de batallas en el alto de Celadilla, situado en Zalla y en el límite con Balmaseda, que fueron otro de los escenarios más importantes de la II Guerra Carlista. Recientemente diversos estudios históricos y excavaciones arqueológicas han puesto en valor algunos de aquellos lugares. La jornada comenzará también en el museo con charla de Gorka Martín, y transcurrirá en bus y a pie (hay una caminata de 50 minutos) para llegar al yacimiento arqueológico.
- **11 de diciembre: Las batallas de Kolutza (1937).** En julio y agosto de 1937, con el frente situado entre los montes Kolutza (Balmaseda) y Alen (Sopuerta/Trucíos), el ejército vasco inició una serie de contrataques sobre la ermita de San Roque defendida por el ejército nacional con el objetivo de recuperar el terreno de Las Encartaciones ocupado a finales de junio. En aquellos infructuosos ataques, fallecieron centenares de soldados de ambos bandos. El itinerario comenzará a las diez de la mañana en el Museo con una charla de Zunbeltz Matabuena Iarza y Xabier Herrero, quienes resumirán los acontecimientos principales de la guerra civil que la Asociación Balmaseda 1937 presentó en formato de cómic. Desde Abellaneda se llegará al Kolutza y el collado de La Nevera, escenario de las diferentes batallas que allí se dieron durante aquel verano de 1937.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



- **15 de enero: Balmaseda. Escenarios de la guerra (1936-1939).** Balmaseda fue un punto fundamental en la Guerra Civil. Allí se acantonaron batallones republicanos y, después nacionales. Numerosos edificios tuvieron uso militar y las fábricas fueron militarizadas y usadas por ambos bandos. Se construyeron refugios y se habilitaron hospitales, puestos de mando, lugares de abastecimiento, puestos de vigilancia, almacenes militares... Tras la charla de Zunbeltz Matabuena Iarza y Xabier Herrero, un autobús llevará a los inscritos a la Plaza de San Severino (Balmaseda) y desde aquí a descubrir numerosos espacios balmasedanos de la guerra, hoy caídos en el olvido: el hospital, acantonamiento de batallones, cuarteles generales, fábricas militarizadas o los refugios antiaéreos.

Inscripciones y más información:

<https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/index.asp>